

XXXIV. BIDEOALDIA

Ekaina 24

Antzoki Zaharra

19:00

Gonbidapenarekin

Larrotxene Kultur Etxeak, Donostia Kulturako ikus-entzunezko eremuan espezializatutako zentroa den aldetik, ikasturtean zehar egindako lanak Bideoaldian aurkezten ditu urtero. 34 urte dira Larrotxeneko bideo espezializazioa martxan jarri zela Intxaurren auzoko Larrotxene Kultur Etxean eta dagoeneko 500 produkzio baino gehiago ekoitzi dira eta ehunka koprodukzioetan parte hartu da.

Bideoaldiaren 34. edizioa **Antzoki Zaharrean egingo da ekainaren 24ko arratsaldeko 19:00etan eta sarrera doakoa izango da**. Ekitaldirako **gonbidapenak Antzoki Zaharreko leihatilan jaso ahalko dira egunean bertan (11:30-13:30 / 17:00-19:00)**. Pertsona bakoitzeko gehienez 2 gonbidapen eskuratu ahal izango dira.

Ikasturteko produkzioak

2021-2022 ikasturtea normaltasunera itzultzearen urtea izan da Larrotxenen. Ikasleen segurtasuna bermatzeko ikasturtea unean uneko osasun-neurriekin hasi zen eta pixkanaka pandemia aurreko dinamika berreskuratzen joan da. Lana emankorra eta sormenez beterikoa izan da eta ikasturtean zehar landu diren hainbat generotako produkzioen aukeraketa ikusteko parada izango dugu:

Zinema Zuzendaritza ikastaroaren barruan, **Pablo Maloren** ikasleek **KOADRO GORIARI HELDU** film laburra zuzendu dute.

Halaber, **Andoni de Carlosek** irakasten duen Gidoigintza Hastapena ikastaroko ikasleek **PLATAFORMA** eta **GAUERO** film laburrak zuzendu dituzte.

Michel Gaztanbidek zuzenduriko Gidoi Aurreratua ikastaroko ikasleen **MINUS 64 Kg** eta **BONITA** lanak ikusi ahal izango dira.

Koprodukzioen atalean **JONE K.** eta **LA CARGA** film laburrak proiektatuko dira.

Aipagarria da **aurtengo ikastaroko lan guztiak euskaraz** egin direla. Horren erakusgarri, **Bideoaldian izango den gaztelaniazko lan bakarra LA CARGA koprodukzioa** da eta gainerako guztiak euskaraz izango dira.

Oihua!

Larrotxene Bideok Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin kolaborazioak egin ohi ditu. Aurten **Oihua!** genero fantastikoko gidoien lehiaketaren bigarren edizioa ospatu da. Irabazleak aditu baten tutoretza eta Larrotxene Bideo inguruko baliabide materialak eta giza baliabideak ditu bere obra egiteko. Aurtengo pieza irabazlea, **AZKEN PARTIDA**, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean estreinatuko da.

2021-2022 mailegu zerbitzua

Azken garai hauetan bizi dugun egoera kontuan hartuta, materiala mailegatzeko zerbitzua oso maiz erabili da. 2020-2021 ikasturtean **berrogeita hamar mailegu inguru egin dira** mota guztietako ikus-entzunezko ekoizpenei laguntzeko, bai ikastaroetatik etorri direnei, bai ekimen partikularrei. Larrotxenek **etorkizunari** baikor begiratzen dio hirian eta ikus-entzunezkoen munduan duen **erreferentzia izaera** sendoa baita. Hala erakusten du urtez urte instalazioak erabiltzen dituzten ikus-entzunezkoen zaleek eta profesionalek osatzen duten **komunitate gero eta handiagoak**.

Informazio gehiago:

943 483 840 kulturekintza@donostia.eus